

txintxarri



Goizetik gauera, ostiraletik igandera

Festa asteburu eder bezain jendetsuaz gozatu dute Zabaleta auzoan / 8-9

TXINTXARRI

Eskuz-esku erabakitzero

Gure Esku Dago-k herritarrak deitu ditu igandeko giza katean "festa giroan" parte hartzera / 2

LH5 eta 6. mailako ikasleek hondakin gutxiago nola sortu landu dute udal ordezkariekin / 4

Hurrengo denboraldian Huescarekin Lehen Mailan debutatzeko gogotsu da Ander Bardaji atezaina / 10

EPA LASARTE HHI

2018-2019 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK
Ekainaren 11tik 27ra

- Lehen eta bigarren hezkuntza arautuak (DBH)
- Erdi eta Goi zikloko Sarbide Proben prestaketa
- Gaztelania atzerritarrentzat



Ordutegia:
11:00-13:00
(anbulategi gainean)





Seguro, Garzes, Goizueta eta Lopez, 9. kilometroko seinalearekin. TXINTXARRI

"Beste mugarri bat ezarriko dugu igandean"

Donostia, Gasteiz eta Bilbo lotuko ditu igandean Gure Esku Dago-ren giza kateak. Herritarrei Belartzako biribilgunetik Ugaldea arteko bi kilometroak egokitu zaizkie. Okendon geratu dira, 10:30ean. "Festa giroan" parte hartzeko gonbita luzatu dute

Adrian Garcia

Egun gutxi falta dira. Igandean beste mugarri bat ezarri nahi du Gure Esku Dago-k; giza kate baten bidez lotu nahi ditu Donostia, Bilbo eta Gasteiz. Lasarteoriatarrek ere izango dute zeregina horretan. Belartzako biribilgunetik Ugaldea industriaguneraino ezartzea egokitu zaie. Maider

Seguro, Idoia Garzes, Marijo Goizueta eta Joxean Lopez lanean aritu dira dena prestatzen. Azken hilabeteetan hitzaldiak eta mahai-inguruak antolatu dituzte herrian, erabakitze eskubidearen eztabaida plazaratzeko. Orain, "jai giroan gozatzea" besterik ez da falta. Larunbata arte izena emateko aukera dago oraindik.

Igandean 10:30ean geratuko dira Okendo plazan, giza katera abiatzeko.

"Ekarri pankartak, *postit*-ak, hamaiketakoak, aldarrikapenak...". Erabakitze eskubidearen aldeko ekintza soila ez, "festa handi bat" iragarri dute mugimenduko Lasarte-Oriako kideek. "Mugarri bat ezarriko dugu igandean".

11:30erako egon beharko dute partaideek kilometroan. 9. eta 10.ak izango dira. Eguerdian hasiko da ekintza, eta ordu erdi iraungo du. Ondoren, festak hiriburuetan jarraituko du.

Lasarte-Oriatik 1.000 pertsona inguru joan beharko lirake, herriari dagokion zatia osatzeko. Zapiari helduta osatuko dute katea. Antolakuntza lan handia eskatzen du gisa honetako ekimen batek, eta, horregatik, ezinbestekoa zaie alde zuzenetik prestatzea. Horretarako ireki dituzte izen emateak azken aste hauetan.

Zergatik eta zertarako erabaki? Galdera hori buruan hasi zuten ikasturtea Lasarte-Oriako ekintzaileek. Erantzuna bilatzeko, hainbat ekimen antolatu zituzten. Batetik, Juanjo Alvarezen hitzaldia, eta, bestetik, lau aditurekin solasaldia. Gero, maiatzaren 19an egin zuten aurkezpena. "Jendeak bere nahiak idatzi zituen. Bere aldarrikapenak ere eraman ditzake giza katera", esan du Garzesek.

Egindako lanarekin gustura dago laukotea. "Erabakitze eskubidearena interesa pizten duen gaia da, eta jendeak ongi erantzun du", dio Segurok. Aurkezpenean ere jende ugari ateratu zen kalera, eta zergatik erabaki nahi duen adierazi zuen.

Galdeketa iaz

Gure Esku Dago-ren olatuak iaz jo zuen goia, herrian egin zuten galdeketaekin. Oraingo ekitaldiarekin aldea nabaritzen dute ekintzaileek. "2.000 pertsonak baino gehiagok bozkatu zuten, bazegoen giroa herrian. Iaz beste bat zen egoera; galdeketa zehatzagoa da agian, giza katea

abstraktuagoa da", uste du Garzesek.

Dena den, gaia plazaratzeaz gainera, indarra ere jarri dute alor batean: erabakitze eskubidearen adiera zabala da. Gizarte gai askori eragiten baitio eskubide horrek, nahiz eta askotan kutsu politikoa nagusitzen zaion. Erraustegiak eta hondakinen kudeaketak sortutako eztabaida publikoa da horren adibide. "Iazko galdeketa, hain zuzen, arrazoi horregatik bi galdera planteatu ziren. *Zure intereseko gaietan erabakitze eskubidea nahi ote duzu?*", azaldu du Segurok. Aurten eginiko eztabaida eta mahai-inguruetan ere gai horiek azaldu dituzte. "Oso galdera potoloa dirudi. Baina gure bizimoduari eragiten diote gauza txiki mordoak, eta denok daukagu zeresana, iritzia emateko eskubidea. Hori gizarteratzea izan da gure lana".

Mugimendu anitza

Askotariko jendeak osatzen du Gure Esku Dago dinamika, eta horixe islatzen saiatu dira. "Denentzako irekia da, ez da independentisten bilgunea", ohartarazi du Garzesek. Hain justu, erabakitze eskubideak batzen ditu. "Guri eragiten diguten gaien inguruan iritzia eman nahi dugu. Zein aldetara egiten dugun gutxienezkoa da. Iazko herri galdeketa ere egon ziren ezezkoa bozkatu zutenak. Baina erabaki egin zuten".

LASARTE-ORIATIK 1.000 BAT PERTSONA BEHAR DIRA EGOKITUTAKO ZATIA OSATZEKO

Intxaurrandieta Villa Mirentxun

Zubietako errauste plantaren afera gizarteratzeko eta salatzeo *Angula Ustelak* hitzaldi biran parte hartzen ari dira Ainhoa Intxaurrandieta eta Iñaki Errazkin. Astelehenean Villa Mirentxun eskaini du Intxaurrandietak hitzaldia.

EH Bildu Gipuzkoako Hondakinen Kontsultaziora iristean erraustegiaren kontratua apurtu zuen, eta horregatik epaitu ditu Madrilgo Kontu Auzitegiak. Prozesuan bizitakoaren berri eman die lasarteoriatarrei.



TXINTXARRI

Dendari txikien aldeko elkarretaratzea deitu du Talde Aktibistak

Lasarte-Oriako Talde Aktibistak *Merkataritza txikia eta lan duinaren alde!* lelopean elkarretaratzea egingo du, datorren asteartean. Hitzordua udaletxe zaharraren aurrean izango da, 20:00etan. Lasarte-Oriako herritarrei dei egin die agerraldian parte hartzera. Bestalde, maiatzaren 5ean egindako kale-ekintzako bideoa argitaratu dute, ondoko helbidean: <https://player.vimeo.com/video/268804839>.

Kuadrillategik Arcachonera irteera antolatu du

Kuadrillategik ekainaren 22an Arcachonera irteera antolatuko du. Ttakuneko bazkideek 42 euro ordaindu behar dute; bazkide ez direnek, berriz, 45 euro. Izena ematea astelehenean, ekainaren 11n ireki eta ekainaren 15ean amaituko da. Erreserba izen emate eta ordainketa ordenaren arabera izango da. Plazak mugatuak dira. Zalantzetarako, ktglasarteoria@ttakun.eus era idatzi edo 678 170 113 zenbakira deitu.

Zikiro afariko txartelak salgai, astelehenean aurrera

Ttakun Kultur Elkarteak San Pedro Jaietako lehen egunean Zikiro afaria antolatu du. Hitzordua, ekainaren 28an, 21:30ean izango da, Okendo plazan. Afarirako txartelak 20 euro balio ditu, eta astelehenean, ekainaren 11tik aurrera, Jalgi Kafe Antzokian eta Ttakun elkartearen daude salgai. Txartelak eskuratzeko azken eguna hilaren 26a da.



Irakasle eta gurasoen laguntzaz, ikastetxeetako gaztetxoek eskolarako bidea oinez egin zuten asteartean. TXINTXARRI

'Eskola bideari' esker, ikastetxera oinez

Ingurumenaren Eguna dela eta, Lasarte-Orian herritarrak kontzientziatzeko hainbat ekintza egin dituzte. Herriko gaztetxoak oinez joan dira ikastetxeetara, Oria ibaiaren ertza garbitu dute eta poltsa berrerabilgarriak banatu dizkiete herritarrei

Txintxarri

Ekainaren 5a, asteartea, Ingurumenaren Eguna zela eta, Lasarte-Oriako ikastetxeetako ikasleek *Eskola bidea* egitasmoa aurrera eraman zuten. Autobusaz ahaztu eta eguraldiari aurre eginez, ikastetxeetara oinez joan ziren guraso eta irakasleen laguntzaz. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko lagunetako batzuk Oriatik ikastetxerako bidea egin zuten. Landaberriko ikasleek, berriz, Zubietako bidetik lasai joateko aukera izan zuten, ibilgailuei moztu baitzen.

Udalak egun hori ardatz hartuta, Aste Berdea antolatuta du, eta hainbat ekintza eraman ditu aurrera.

Larunbatean, esaterako, Oria ibaiaren ertzaren garbiketa egin zen herritarren sentsibilizazioan eragin nahian.

Bi ordu inguruan ehundaka kilo zabor garbitu zituen boluntario talde batek. Lurreko hondakinak eta adarretan pilatzen direnak jaso zituzten. Denetarik jaso zuten: burdin piezak, hodiak, neumatikoak, edukiontzi zatiak, bizikletak, patinetea... "Azpimarratzekoak plastikoak eta higiene pertsonaleko zapi hezeen hondarrak", adierazi dute Artelatzen enpresako kideek.

Pozik agertu dira boluntarioek egindako lanarekin, baina

azpimarratu dute Michelin aldeko "zati bat besterik" ez dela garbitu. "Lan handia gelditzen da oraindik".

Astelehenean 30 bat herritar Urrietako ontzi-hondakinaren sailkatze plantara hurbildu ziren, eta hondakinak nola kudeatzen diren ezagutu zuten bertan.

EPA-HHIn kontsumo arduratsuari buruzko tailerra ere eskaini da.

Bestalde, Okendo plazan, asteartean hasi eta gaur, ostiralera arte, plastikozko botilen tapoiekin horma-irudi bat egin eta poltsa berrerabilgarriak banatzen ari dira.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Zaintza

Bederatzi hilabetez sabelean eraman eta gero, eta ondorengo asteetan besoetan, soinean edota kotxetxoan, lehenago ala beranduago seme-alabengandik aldentzeko garaia iristen da: batzuentzat hamasei astetako baimena bukatu bezain pronto; beste batzuentzat opor, eszedentzi edo dena delako bide guztiak xahututa.

Nekeza izaten da pauso hori ematea gurasoentzat, are gehiago trabekin topo egiten dutenean, geure herrian kasu. Goazen zein aukera dituzten ikustera. Aitona-amonekin uztea: ez al dute nahikoa lan izan gurekin, biloben zama ere eurek eramateko? Zaintzailea kontratatzea: zorte onekoa, beste baten soldata ordaintzeko gai bazara. Haurreskolara eramatea: Lasarte-Orian badugu Haurreskola, baina, adi; kalkuluak ongi egin, plazarik gabe geratu nahi ez baduzu. Batek baino gehiagok egin du topo sorpresa desatsegin horrekin matrikula egiterakoan, eta ez dago B planik; ez, behintzat, herrian bertan.

Zaintza ez da, ordea, bizitzako lehen urteetako kontua soilik, eta orain, udako oporrak gainean ditugula, norbaitek hartu behar du seme-alabekin egoteko ardura. Udako Txokoak dira aukeretako bat, eta, hara non, aurten, ika-mika sortu den. Bizkorrenen Ttakunek antolatutako eman dute izena, baina beste batzuek udalaren eskaintzaren zain geratu dira. Luze itxaron ondoren eta enpresa berriarekin nahiz udalak egindako kudeaketarekin sortu diren zalantzak tarteko, azkenean, matrikulatu ahal izan dituzte umeak.

Baina bidezkoa al da gurasoak eta batez ere haurrak horrela ibiltzea? Herrian bertan, herriko bitartekoekin zaintza eta hezkuntza on bat emateko bidean, gaiak hausnarketa bat merezi du udalaren aldetik.

Enpresa txikiak sortzeko laguntzen deialdia ireki da

Lasarte-Orian merkataritzaren, ostalaritzaren edo zerbitzu pertsonalen sektoreei lotutako enpresa txikiak sortzeko diru laguntzen deialdi berria aurkeztu da. Aurten lerro berri bat sortu da ezgaitasunen bat duten edo 55 urtetik gorako adina duten pertsonen zuzendua. Laguntza % 60koa izango da, eta 2.500 euroko topea du.

2018ko urtarrilaren 1etik Lasarte-Orian merkataritzako, ostalaritzako edo zerbitzu pertsonalen prestazioko enpresaberri bat sortu duten pertsona fisiko nahiz juridikoen eskatu ditzakete laguntza hauek, betiere oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Aurkezteko epea urtearen amaierara artekoa da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, udalaren webgunean, 943 376 179 zenbakian edo d.avila@lasarte-oria.eus helbidean eskuratu daiteke.

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Uda iritsi baino lehen, hau da fotodepilaizoa egiteko une aproposa!

Ustien Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

Escocia

IRTEERA IRAILEAN

Noaoak gidatutako talde bidaia. Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Aenda 21eko batzar berezia amaitzean taldea argazkia atera zuten gaztetxo, irakasle eta udal ordezkariak. TXINTXARRI

Hondakinen murrizketa, udalbatzan eztabaidagai

Lasarte-Oriako ikastetxeetako LH5 eta LH6 mailetako gaztetxoek hondakin gutxiago nola sortu landu dute aurten Agenda 21 programan. Ordezkaritza batek udal arduradunei aurkeztu dizkiete landutako proposamenak, udalbatzar aretoan

Txintxarri

Udalbatza berezia izan da Lasarte-Orian. Ez dira herriko ohiko gaiak jorratu, oraingoa bai bakarria izan da mahai gainean: hondakin gutxiago nola sortu. Agenda 21 programaren barruan gaia landu dute Lasarte-Oriako ikastetxeetako LH5 eta LH6ko haurrek ikasturtean zehar. Egindako lanketa azaldu eta hainbat proposamen egin dizkiete gero Jesus Zaballos alkateari, Agustin Valdivia Ingurumen sailko buruari, Maite Iglesias hezkuntzako arduradunari eta Xabier Goitia Manuel Lekuona kultur etxeko kudeatzaileari.

Lehenik, ikasgeletan eta ikastetxeetan egin duten lanketa azaldu dute. Mugikortasunari buruz, aurreko urteko konpromisoak aztertu ostean, aurtengo gaiari heldu diote. Ikasgelak, ikastetxeak eta ikasle bakoitzak etxean sortzen duen hondakina aztertu dute. Honez gain, udal ordezkariak jakitera eman diete *Publizitaterik ez!* pegatinak diseinatu, argazki eta marrazki lehiaketa egin eta hondakinen jolasera jokatu direla.

Herri mailako diagnostikoa ere egin dute. Semaforoko koloreak oinarri hartuta berdez



Idatzitako dekalogoko puntuak aurrera emateko konpromisoa hartu zuten gehienek. TXINTXARRI

jardunbide egokiak, horiz hobetu beharrekoak eta gorritz saihestu beharreko jokabideak sailkatu dituzte. Honi esker, herriaren egiteko asko dagoela ohartu direla azpimarratu dute batzarrean.

Horiek kontuan izanik dekalogo bat idatzi dute guztiek beteko dituzten gutxieneko konpromisoak aipatuz. Batzarrean aurpegi berde edo gorria erakutsiz, horiek jarraituko dituzten edo ez adierazi behar izan dute.

Horrez gain, udalari hondakin gutxiago sortzeko eta kaleak g a b i a g o m a n t e n t z e k o proposamenak luzatu dizkiete, lau multzotan bereizirik: kontzientziazio kanpainak, edukiontzia, kale garbiketa eta bestelakoak.

Zaballos alkateak proposamen guztiak entzun eta udalaren

ikuspegia azaldu die gaztetxoei. Besteak beste, esan du Aste Berdean herritarrei poltsa berrerabilgarriak banatuko zaizkiela; txakurren jabeek zuzendutako kanpaina bat aurrera eraman dela edo lur-azpiko edukiontzia mantendu edo kentzeko parte-hartze prozesu bat egingo dela. Bestetik, konpromiso batzuk ere hartu dituzte, hala nola, San Markos Mankomunitateari haur edo elbarritasunen bat duten pertsonen egokituak dauden edukiontzia diseinatzea posible den galdetzea.

Batzar bereziari amaiera emateko, argazkia atera dute guztiek eta gaztetxoek opari bat eraman dute etxera: Aste Berdean banatzen ari diren poltsa berrerabilgarriak.

Udalaren Udako Txokoetan izena emateko epea ireki da

Internet bidez edo Mercero gunean egin ahal da udalekuetarako inskripzioa, ekainaren 15era bitartean

Txintxarri

Udalak antolatutako Udako Txokoek bi txanda izango dituzte, bata uztailean eta bestea abuztuan. Txanda bakoitzean bi modalitate eskainiko dira, 3 ordukoa (10:00etatik 13:00etara) eta 4 ordukoa (9:00etatik 13:00etara). 3 ordukoaren prezioa 100 eurokoa izango da eta 4 ordukoarena, berriz, 135 eurokoa. HH3 urteko haurretatik hasi eta LH6. mailaraino egin duten gaztetxoak eman ahal dute izena.

450 plaza eskainiko dira printzipioz, eta izena emandako hurrenkera izango da plazak esleitzeko irizpidea. Lasarte-Orian errolatuak dauden haurrek izango dute lehentasuna.

Gizarte Larrialditako Laguntzak jasotzen dituzten herritarrek,

gainerako udal zerbitzuetan dituzten hoberi berak izango dituzte. Udako Txokoetan seme-alaba bat baino gehiago matrikulatzen den kasuan ere hoberiak daude.

Ekainaren 15an amaituko da izena ematea. Matrikula-orria <http://sport-madness.com/udakotxokoak/orrialdean> edo zuzenean egin ahal izango da. Matrikula zuzenean egiteko, Mercero guneko beheko solairuan dago bulegoa. Ordutegia 11:00etatik 13:00etara edo 17:00etatik 19:00etara da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Mercero Guneko bulegora zuzendu ahal izango da, udaleko Euskara Zerbitzura edo 659 984 128 telefono zenbakira deitu daiteke.



TXINTXARRI


Jaiotzetik komunikazioa lantzeko

Lau eta zazpi hilabete bitarteko haurren komunikazio beharrez eta gogoez hitz egin du Paula Kasares adituak. *Komunikazioa eta haurren zorientasuna* hitzaldia eskaini du Antonio Mercero aretoan, eta komunikatzeko gogoari erantzun egokia ematea ezinbestekoa dela nabarmendu du.

Doinu alaiak eta bertsoak

Lasarte-Oriako Landaberriko eta Sasoetako ikasleek ikasturtean landutako doinu eta errimen erakustaldi dotorea egin dute astelehen arratsaldean. Unai Muñoa bertsolariarekin ikasitakoak taularatu dituzte, eta zenbait kasutan antzerki laburrak ere egin dituzte, ondoren horiei bertsoak jartzeko.

Askotariko doinu ezagun eta alaiak oinarri hartuta, tarte ederraz gozatzeko aukera izan dute kultur etxera gerturatutakoak.



TXINTXARRI

UDAKO TXOKOAK LASARTE-ORIA

IZEN EMATEAK:

EKAINAREN 6tik 15era (11:00-13:00 eta 17:00-19:00)

PRESENTZIALKI

Mercero gunea, beheko solairua, Lasarte-Oria

ONLINE

www.sport-madness.com/udakotxokoak

1. Txanda 2018-07-02/ 2018-07-27

1. HH3-LH2 GARAIKOETXEA ERAIKINEAN

2. LH3-LH6 SASOETA ERAIKINEAN

2. Txanda 2018-08-01/2018-08-29

1. GARAIKOETXEA ERAIKINEAN

KONTAKTUA: 659 984 128

LASARTE-ORIA

Hamasei urtez hamabostaldia

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren emanaldi koloretsuak



Koloretako jantziak soinean, doinu alaiak dantzatzuz jaitsi dira Zabaletatik kaxkora. TXINTXARRI



Dantzari gazte talde bat, gorputza mugitzen hasteko irrikitan. TXINTXARRI



Urtero moduan, Zabaleta auzoan eman dio hasiera Kukukak hamabostaldiari. TXINTXARRI



Buenos Aires aldapan behera Okendo plazarainoko ibilbidea egin dute taldeko kideek. TXINTXARRI



Obren erakustaldia egiten ari dira Kukukako kideak egunotan. TXINTXARRI



Trebe aritu dira Lasarte-Oriako gazteboak Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusiko oholztan. TXINTXARRI



Sasoetako ikasleak *Mafia* antzezlanean. TXINTXARRI



Asteazkeneko saioen artean *Aupa Etxebeste* filma taularatu dute. TXINTXARRI

Urtero moduan, Zabaleta auzoko festetan eman diote hasiera hamabostaldiari Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako kideek. Larunbat eguerdian, Antonio Blas plazatik irten, Buenos Aireseko aldapan behera abiatu, eta Okendon amaitu zuten ibilbidea.

Koloretako trapuak eta sudurrak jantzita, desfile animatuan jaitsi dira Zabaletatik kaxkora, eta dantza emanaldiak eskaini dituzte bidean.

Astelehenean, berriz, hamabostaldiko lehen emanaldiak izan ziren Manuel Lekuona kultur etxean. Egun horretan Landaberri eta Sasoeta Ikastetxeetako LH 1-2 eta 3. mailako ikasleek zenbait obren erakustaldia egin dute.

Txikiaren antzezlanean gozatu dute gurasoek eta kultur etxera gerturatutakoek. Antzezlanean gaitasunak erakutsi dituzte. Astelehenean *Sei anaiak*, *Arratsalde bat zineman*, *Terrazarrak* eta *Dendatarrak obrak* antzeztu zituzten Landaberrikoek. *Zirkuz marabillux!* eta *Zinema Sesion* Sasoetakoek.

Asteazkenean Sasoetako ikasleak aritu dira kultur etxeko oholztan gainean. Bi obren erakustaldia egin dute: *Mafia* eta *Aupa Etxebeste!*. Lehenengoan mafia kasu baten parte izan dira ikasleak. Gordons inspektorearen laguntzaz, lapurreta kasu bati aurre hartu diote. Bigarren antzezlanean, berriz, Telmo Esnal eta Asier Altuna zinemagileen filma ekarri dute oholztan gainera; Patrizio Etxebestek ez du oporretara joateko dirurik, baina ez du herrian hori inork jakiterik nahi. Isilpean, etxean igarotzen dituzte opor egunak.

Ostegunean, aldiz, antzerki eta dantza emanaldiak egin dituzte Kukukako kideek herriko kaleetan barrena. Pintxo-potearen unea aprobeztatuz, giro ederrean igaro dute arratsaldea.



San Pedrotako zenbaki berezia ekainaren 22an

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!

publizitatea@ttakun.eus
943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

Asteburua, festa giroan

Zabaletako Jaiez gozatu dute lasarteoriatarrek asteburuan zehar



Sorgin-dantza ere ez zen falta izan. Urteroko ohitura bilakatu da. TXINTXARRI



Jalguneko lagunek emanaldi ederra eskaini zuten, plaza alboko karpan. TXINTXARRI



Akelarre ikusgarria plazaratu zuten Zabaletako hainbat auzotarrek, larunbat gauean. TXINTXARRI



Irribarreak, jauziak, txaloak... Behin eta berriro ikusi dira dibertsio aurpegiak Zabaletan. TXINTXARRI



Teresa Sorginaren jaitsierarekin lehertu zen festa, ostiral arratsaldean. TXINTXARRI



50 bat herritarrek hartu zuten parte V. Sorgin Krosean. ISAAC FARRE RICO



Dena eman zuen oholta gainean The Lobsters taldeak. Irudian, Fran Toquero, gitarrarekin TXINTXARRI



Jendetza elkartu zen plazan larunbat arratsaldean, bertsolarien emanaldia ikusteko. TXINTXARRI

Ikusi, entzun, usaindu, dastatu. Eta dibertitu. Eta gozatu. Lasarteoriatarren zentzumen guztiak dantzan jarri zituzten Zabaletako auzotarrek joan den astean zehar. Ekintzaz betetako auzoko festak antolatuta dituzte aurten ere (kanta berri eta guzti), herritarren gozamenerako. Konturatzera, bukatu zen asteburua, eta baita jaiak ere. Dena den, akelarreko sua ez da itzali oraindik, eta egun batzuez iraungo du zabaletarren sorginkeriak.

Proba mistoa, Jon Otaegi eta Julen Gabirondo segalarien erakustaldia eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako ikasleen emanaldiak izan ziren igande goizeko arretagune nagusiak. Sollane baserria, Telleri-Gain eta Zabaleta Berri taldeek hartu dute parte aurten. Trontzan aritu behar izan zuten aurrena, txingak eramaten gero, lokobak biltzen eta korrika. Sollane ordezkatu duten kirolariek bukatu dute aurrena: hamar minutu eta hamaika segundo behar izan dituzte lana bukatzeko. Bederatzi segundo gehiago behar izan ditu Telleri-Gainek, eta hemezortzi Zabaleta Berrik. Hori baino lehen, ederki aritu dira segan Jon Otaegi eta Julen Gabirondo. Gutxiगतिक, baina Otaegi gaztea gailendu da. Goiza ixteko, proba mistoa bukatu bezain pronto, omenaldi hunkigarria jaso zuen Imanol Jimenez zenaren familiak, Antonio Blas plazako oholta gainean.

Larunbateko V. Sorgin Krosean, berriz, Andoni Ilaramendik eta Anabel Elenok irabazi zuten. 22:15eko denbora egin zuen Ilaramendik, eta 27:05ekoa Elenok.

Joan den ostiral arratsaldetik, Teresa Sorgiña auzora jaitsi zenetik, etenik gabekoa izan zen festa giro alai eta koloretsua. Bukatu berri dira festak, eta atseden hartzea tokatzen da orain, baina aurtengo jaien arrakasta ikusita, are gogo gehiagoz hasiko dira datorren urtekoak prestatzen. Edabe magikoaren errezeta buruz dakite honezkerok, baina osagai berriak gehitzen dizkiete urtero, are gehiago sorgintzeko.



Julen Gabirondo segalaria, ahalegin betean. TXINTXARRI



Proba mistoan parte hartu zuten kirolariak, lanak bukatu eta gero. TXINTXARRI

"Lesioa pena izan arren, asko gozatu dut aurten"

ANDER BARDAJI HUESCAKO ATEZAINA

Minutu bila atera zen iaz Realetik, baina lesio batek joko zelaietatik urundu du lasarteoriatarra. Sasoain dago, eta hurrengo denboraldian Lehen Mailan postua irabazteko lehian sartuko da

Adrian Garcia

Ongi ospatu du Ander Bardajik (Lasarte-Oria, 1995) Lehenengo Mailarako igoera. "Bizitzan behin gertatzen dira gauza hauek". Ez du zorte handirik izan aurten atezainak, denboraldi hasieran sorbaldako lesio batek urundu baitzuen joko zelaietatik, baina erabat osatuta dago egun. Oporraldi batzuk hartuko ditu orain, sanpedroetarako herrira itzultzeko, "lagunekin ondo ospatzeko". Realean zegoenean ez zuen aukerarik eduki goi mailan debuta egiteko, baina gogotsu dago hurrengo urtean helburua betetzeko.

Zer moduz joan dira ospakizunak? Lehen aldiz igo da Huesca Lehen Mailara.

Oso berezia izan da, historikoa. Ondo ospatu genuen. Hasieran Lugon, igotzea lortu genuenean. Gero Huescan, zaleekin eta erakunde publikoek antolatutako ekintzetan. Egun arraroak izan dira, burbuila batean bezala egon gara, asimilatu gabe zer lortu dugun.

Familian baduzu futbolerako tradizioa. Zure aitaren bi osabak jokatu zuten Lehen Mailan.

Futbolekin ez nintzen hasi familia tradizioagatik. Lagunekin jokatzeko nuen, eta segituan deitu zidan Realak. Batzuk esaten dute ezaguna egiten zaiela nire



Ander Bardaji, igoerako elastikoarekin. TXINTXARRI

abizena, eta ezagutzen zituztela nire aitaren osabak. Zorionez, jarrailu ahal izan dut familiako hari horri tiraka.

Futbolekin hasi aurretik beste kiroleretan aritu zinen.

Ia kirol guztiak egin ditut. Tenisean hasi nintzen, baita pilotan ere. Futbolekin aletan hasi nintzen, Ostadarren. Orduan Eskola Kirola ez zen futbola bakarrik. Atletismoa, eskubaloia

eta beste hainbat kirol egin ditut. Orain ere ez dut futbola bakarrik egiten. Lagunekin frontoira joaten gara, squashean ere aritzen naiz...

Hurrengo denboraldian izango duzu aukera Lehen Mailan debuta egiteko. Realean ere egon zinen jokatzeko zorian.

Izan nituen aukera bat baino gehiago. 25 partidatan sartu nintzen deialdian. Berotzera

atera nintzen batzuetan, kolpeak zirela eta. Azkenean ez zen suertatu atezaina aldatzea. Beste batean [Geronimo] Rulliri zigorra ezarri zioten, eta jokatzeko aukera izan nuen. Azkenean ez nuen zortetik izan. Zutoinera baloi asko, baina golik ez.

Huescara joan zinen minutu bila, baina urrian min hartu zenuen. Zer moduz duzu sorbaldan orain?

Osatuta nago. Denboraldi hasieran min hartu nuen, luzerako gainera. Esan zidaten gogorra eta luzea izango zela, baina ondo osatu naiz. Azkeneko hilabeteak taldearekin normal entrenatu dut. Hori zen nire helburua; ongi bukatzea denboraldia datorrena ondo hasteko. Sasoia berriro hartzea kosta egiten da, gainera. Hasieran erritmo faltarekin ikusten zara. Baina sasoi beteana nago orain.

Azkeneko deialdietan sartu zara behintzat.

Bai, baina ez dut jokatzeko aukerarik izan. Urtea joan den bezala ikusita, deialdian sartzea pozgarria izan da.

Jokatu ez arren, taldeko kide zara. Zurea bezala sentitu duzu igoera, ezta?

Bai, bai. Beti sentitu naiz bat gehiago taldean. Lehenengo egunetik azkeneraino aintzat hartu naute denek, beste guztiak bezala. Minutu gehiago edo gutxiago izateak ez du esan nahi taldearen parte ez zarenik. Kluba denok osatzen dugu. Alde horretatik, asko gozatu dut aurten. Lesioa pena izan da, baina oso polita izan da taldea ongi doala ikustea, astebururo irabaztea eta sailkapenean goran ikustea.

Huesca Bigarren Mailan aurrekontu txikiarenetik duen taldea da. Hurrengo urtean egin al zarete hor goian ikusteaz?

Iaz seigarren bukatu zuten, eta igoerako kanporaketa jokatu. Aurten oinarri sendo bat zegoen, eta taldea dinamika on batean sartu da. Zaila ikusten zen iazkoa errepikatzea eta gaintzea. Baina gauzak ongi egitean konfiantza lortu eta zure aukeretan sinesten duzu. Talde ona dugu. Gure artean ere giroa ona da. Klubak gauzak ondo egiten ditu.

Kontratua duzu Huescarekin. Hurrengo urteari begira zein da zure helburua? Aukerak ikusten dituzu jokatzeko?

Oraindik gauzak erabakitzeke daude. Bi atezain utziak zeuden iaz, eta ni fitxatuta. Ikusteko dago zer gertatuko den. Ez dakit Athleticek [Alejandro] Remiro berreskuratuko duen, ez dakit [Roberto] Santamariari kontratua berrituko dioten. Orain gauzak airean daude. Oporrez gozatzeko unea da orain, iritsiko da horiei buruz hitz egitekoa.

Entrenatzaile berriak ere eragingo du, ezta? Nolako da Leo Franco?

Huescan zuzendari bezala egon da Leo. Taldean ere jokatu izan du. Atezainekin gertutasun handia du; entrenatzen geundenean gugana hurbiltzen zen. Atezaina izandakoa da, eta beti zaindu gaitu ondo. Entrenatzaile bezala ez dakit nolako den, baina seguru prestatuta dagoela.

Nola ikusten duzu taldea hurrengo urterako? Hiri txikia da Huesca, baina badaude beste eredu batzuk mailan egonkortsu direnak.

Eibar da gertukoena. Iaz igo ziren hiru taldeak ere ez dira jaitsi. Gauzak ongi kudeatuta eta federekin, mailari eutsi diezaiokegu. Egia da indartsuenekin ezin garela alderatu, baina talde asko daude lehian; gu borroka horretan sartuko gara.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

III. JOSE MARTIJA TORNEOA

Benjamin mailako III. Jose Martija Torneoa lehiatuko dute hamabi taldek. Larunbata. Egun osoa. Michelinen.

ARETO-FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA

Insausti Kattagorri - Buenetxea
Larunbata. 09:30. Michelingo kirolgunean.
Izen Gabe - Txoko taberna Autocares Luiscar
Larunbata. 10:30. Michelingo kirolgunean.
Patricio Cocktail bar - Avenida
Larunbata. 11:30. Michelingo kirolgunean.

Viña del Mar - Trumoi

Larunbata. 12:30. Michelingo kirolgunean.

TXIRRINDULARITZA

KADETEAK

Kadete mailako txirrindulariek Gaztebroak torneoko Lizarrako proban lehiatuko dute. Larunbata. 16:00 eta 17:30. Lizarran.
Kadete mailako txirrindulariek XXXII. Olakua proban parte hartuko dute. Igandea. 16:00. Oñatin.

JUBENILAK

Jubenil mailako txirrindulariak Joxe Mari Korta Oroimenezkoan parte hartuko dute. Larunbata. 09:30. Zumaia.

IGERIKETA

LASARTE-ORIAKO SARIA

Lasarte-Oriako XXIX. saria lehiatuko da. Larunbata. 10:00. Kiroldegian.

32 IDM BERLIN 2018

Nahia Zudaire 32 IDM BERLIN 2018 -World Para Swim World Series lehiaketan parte hartzen ari da, Espainiako selekzioarekin. Igandera arte. Berlinen.

TRITATLOIA

ZARAUZKO TRITATLOIA

Andoni Illarrendi herritarrek Zarauzko Triatloi proban parte hartuko du. Larunbata. 14:00. Zarautzen.

PILOTA

4 T'ERDIKO TXAPELKETA

Iruretagoiena - Lertxundi
Igandea. 11:00. Michelinen.

2. URTEKO ALEBINA

Hernani 2 - Intza 2

Ostirala. 20:00. Hernanin.

SQUASH

HERRIKO TXAPELKETA

Finala jokatu dute larunbatean, kiroldegian. 15:00etan kontsolazioko finala izango da. Ordubetan geroago, 16:00etan, hirugarren eta laugarren

postuetarako partidak jokatu ditzute. Horiek amaitzean, txapelketaren final nagusia jokatu dute; ondoren, irabazleek sariak jasoko dituzte.

Larunbata. 15:00. Kiroldegian.

MENDI LASTERKETAK

INTXIXU TRAIL GIRIZIA

Herriko zenbait korrikalarik Oiarzungo mendian lasterketan parte hartuko dute. 16,5 km-ko ibilbidea osatu beharko dute, Aiako Harria parke naturalean zehar.

Larunbata. 16:00. Oiarzungo.



Pablo Muga, Mikel Kortajarena eta Iñaki Racamonde Lasarte-Oriako pilotuak, Aiako igoeraren ondoren. TXINTXARRI

Aiako automobil igoera: debuta eta bi garaipen

Lasarte-Oriako pilotuak fin ibili dira joan den asteburuko proban. Pablo Mugak eta Iñaki Racamondek garaipena eskuratu dute haien kategoriatan. Mikel Kortajarenak bigarren egin du estreinaldian. Racamonde lehen postuan da sailkapen nagusian

Adrian Garcia

Rally zaletasuna badago Lasarte-Orian. Hasiera batean irudi dezakeena baino gehiago behintzat. Mikel Kortajarena, Pablo Muga eta Iñaki Racamonden pasioa dira autoak, eta ahal duten guztietan kirol horrek eskaintzen dien adrenalina gozaten dute. Joan den asteburuan Aiako igoeran parte hartu zuten, etxetik gertu. Ibilbidea ezaguna dute, nabaria da hori. Kortajarenak debuta egin zuen, bere multzoko bigarren denbora onena onduta. Mugak eta Racamondek garaikurra ekarri zuten etxera.

Autoaren motorraren arabera ezartzen dira kategoriak. Klase leian lehiatzen dute Kortajarenak eta Racamondek. Citroen Saxo bat du lehenak, AX motakoa bigarrenak. Klase 2an lehiatzen du Mugak. Saxo bat erabiltzen du hark ere. "Baina nirea prestatuagoa dago, motorra ukituta".

Lehen proban gustura ibili da Kortajarena, eta errepikatzeke irrikaz dago. "Izugarria da. Errepide

guztia zuretzat da. Jende asko animatzen dago bazterretan. Oilo ipurdia jartzen zaizu atera bezain laster".

Hurrengo proba Jaizkibelekoa izango du, iraila amaieran. "Gauza batzuk erosi beharra dauzkat oraindik, arropak-eta utzi egin dizkidate oraingoan".

Hurrena, Jaizkibelekoa

Beste bi eskarmentu handia dute lasterketetan. "18 urterekin, gidabaimena atera berritan ikustera joan nintzen Aiako igoera. Orduetik ez dut hutsik egin", esan du Mugak. Duela lau urte eman zuen pausoa, eta bolantea hartu eta lehiatzen hasi zen.

Racamonde da beteranoena. Etxea garaikurrez betea du dagoeneko. "18 urte daramatzat lehiatzen. Ahal dudan guztietan laguntzen diet besteei". Aurten hiru lasterketa jokatu ditu, eta hirurak irabazi. Asteburu honetan beste txapelketa bat du, Bakion. "Euskal Herriko txapelketa irabaztea da helburua".

Autoak bereziak dira. Horiakin ezin dute errepidean zirkulatu, matrikulatu gabeak daude eta, besteak beste. Bereziki prestatuak daude igoera eta rallyetarako. "Segurtasun barrak dauzkate, autoa ez iraultzeko. Arnesak dauzkate eserlekuetan, lehiaketako gurpilak, suspentsio bereziak...".

Beraz, entrenatzeko aukera gutxi dute. Autoan hobekuntza bat egin badute, probatu ahal izateko zirkuitu batera joan beharra dute. Igoera baten aurretik ibilbidea ezagutzeko, kaleko autoarekin hurbiltzen dira oharrak hartzera. "Astean bertan joan behar gara. Asfaltoa ezagutzeko, zuloak non dauden jakiteko. Mantso ibili behar dugu, entrenatzeko ez baitute trafikoa ixten".

Ez da zaletasun merkea, pilotu bakoitzak bere poltsikotik ordaindu behar baitu dena. "Nahi adina gastatu dezakezu. Guk auto merkeak dauzkagu. Istripua izanez gero... Garrantzitsuena da ondo pasatzea eta autoa osorik ekartzea".

Bodegas eta Sukuntza, Gipuzkoako esprint txapeldunak

Iñigo Ibarburu Trinko triatloi taldeko kidea laugarren atera zen uretatik, goi mailako atzeritarren atzetik

Txintxarri

Igandean Pasai Donibaneako esprint triatloia jokatu zuten, eta emaitza onak lortu zituzten herriko triatloilariak. Modalitate horretako Gipuzkoako txapelketa zegoen jokoan; kirolariak 750 metro igeri, 20km bizikletan eta 5 km korrika egin behar izan zituzten. Bi lasarteoriarrek eraman zuten txapela etxera: Yepa! triatloi taldeko Pili Bodegasek emakumezkoen beterano mailan (1:21:30), eta kadete mailan, berriz, Zumeatarra taldeko Aimar Sukuntzak (1:18:48).

Aipatzekoa da ere, Trinko taldeko Iñigo Ibarburuk egindako lana. Uretatik laugarren atera zen; atzeritik etorritako goi mailako bi australiar eta Zelanda Berriko lehiakide bat zituen aurretik.



Sukuntza eta Bodegas, garaikurrekin. KARMELE

Azkenean, 1:17:59 denborarekin iritsi zen helmugara.

Igande honetan, ekainaren 9an, Zarauzko Triatloian parte hartuko du Zumeatarra taldeko Andoni Illarramendik. Trinkoko kideek, aldiz, ekainaren 16an Lekeition lehiatuko dute.

Martija trofeoa, hirugarrenez

Jose Martijaren omenez larunbat honetan jokatuko dute futbol txapelketa, hirugarrenez. Benjamin goiz eta arratsalde arituko dira Michelingo zelaian. Hamabi talde izango dira denera, hiru multzotan banatuta. Finalak arratsaldean izango dira. Aurretik frontoian bazkalduko dute, 13:00etan. 18:45ean izango da sari banaketa. Talde ugari gonbidatu dituzte, besteak beste, Antiguoko, Eibar eta Beti Ona. Texas eta Sasoeta izango dira Lasarte-Oriako ordezkariak.



ISAAC FARRE



• ZURE NEURRIRA PRESTATUTAKO DIETA ETA ENTRENAMENDUA

• DIETETIKA ETA NUTRIZIOAN AHOLKULARITZA

• ESPERIENTZIA ZABALA

NUTRIZIO DENDA

Kale Nagusia 46, 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 57 93 16

Laugarren postua lortu du Chourrautek Pragan

Podiumak ihes egin dio Maialen Chourraut lasarteoriatarri asteburuan Pragan jokatu den Europako Txapelketan. Onenen artean lehiatu da eta "pozik" amaitu du froga. Ate bat jo ostean, bi segunduko zigorra jaso du. Munduko Txapelketara begira dago orain

Maddi Noriega

Lasarte-Oriako piraguistak ezin izan du beste domina bat kolokatu, asteburuan Pragan jokatu den Europako Txapelketan. Zazpigarren atea jo ostean, bi segunduko zigorra jarri diote, eta, ondorioz, laugarren postuan amaitu du, 103.36 segunduko denbora eginda. Ricarda Funk alemaniarra, Corinna Kuhnle austriarra eta Fiona Pennie britaniarrak osatu dute podiuma.

"Pixkanaka" egin du bidea Chourrautek Europakoan, BAT Basque Teamek argitaratutako elkarrizketan esan duenez. Sailkapena zertxobait kosta egin zaion arren, finalerdietan "egoera kontrolatzen" jakin du, eta horrek helburua lortzea ahalbidetu dio: finalerako sailkatzea.

Prestakuntza ez zaio, ordea, behar bezala joan. Zertxobait "urduri" iritsi da Pragara, martxoan hasi baitzen frogarako entrenamenduetan. Saihets batzuen haustura eta gaixoaldiak medio, negu "oso txarra" pasa du. Errekuperatu eta bi hilabetetara aukeraketa probak aurrera atera, eta hiru aste eskaini dizkio Europako Txapelketa prestatzeari. Hori



Maialen Chourraut Europako Txapelketan. BAT BASQUE TEAM

guztia kontuan hartuta, "pozik eta harro" dago lortutako emaitzarekin, "onenekin" borrokan aritu baita. Kirolariak nabarmendu du 2020. urtean Tokion egingo diren Olinpiar Jokoetarako "oso interesgarria" dela.

Riora begira

Europako Txapelketa amaituta, Rio de Janeiron (Brasilen) egingo den piraguismoko Munduko Txapelketara begira

dago jada Chourraut. Proba horietara "lasaiago" joatea espero du: "Bertan lortutako garrantzitsua izango da, olinpiar jokoetarako postuak banatuko baitira".

Denboraldian aurrera

Lehiaketa gehiago iritsi bitartean, denboraldiari eutsi eta lanean jarraituko du kirolariak, 2020. urteko Joko Olinpikoetara sarrera lortzeko. Hura du helburu nagusia.

Sei lasarteoriatarrek parte hartu dute EH Mendi Erronkan

Bostek lortu dute Leitzako helmugara iristea. Bizkorrena Ivan Granado izan da; 8:17 ordutan osatu ditu 68 kilometroak

Txintxarri

Berez aski gogorra da EH mendi erronka: 67 kilometroko ibilbidea, eta 3.600 metroko desnibel positibo metatua. Eta joan den larunbateko baldintza meteorologikoez are gehiago gogortu zuten lasterketa: eguraldi beroa, sargoritsua, eta ibilbide lokaztua. 700 korrikalari irten ziren, eta erdiek besterik ezin izan zuten bukatu. Parte hartzaile horietatik sei lasarteoriatarrek ziren: Ivan eta Borja Granado, Iñaki Letamendi, Jon Lasarte, Marc Bages eta Javi Olazagoitia.

Erronkan parte hartu zuten sei herritarretatik bostek lortu zuten helmugara iristea; lesio bat tarteko, Gaintzako anoa postuan erretiratzea erabaki zuen Olazagoitia.

Ivan Granado izan zen herritar bizkorrena: zortzi ordu eta hamazazpi minutu behar izan zituen 67 kilometroko ibilbidea egiteko. Ordu eta erdi beranduago iritsi zen Borja Granado (09:58); ondoren, Iñaki Letamendi (10:35); gero, Marc Bages (10:43); eta, azkenik, Jon Lasarte (10:48).



OSTADAR SKT

Giroko porrak baditu irabazleak

Giroa amaitu da, eta Ostadar SKTK txirindularitza porrako sariak banatu zituen ostiralean Avenida Tabernan, hura izan baita puntu gehien lortu dituen taberna. Lehen eta bigarren saria El hijo de Judas eta Lander Sarasola txartelentzako izan da, hurrenez hurren. Urdaiazpikoak, berriz, Corbatas negras, Enzo, Wantru, Txingus, 27-4-2016, Inge, Martxel Onddo eta Maddi eta Leire txartelek eskuratu dituzte.

Errugbiaz gozatzeko

Eguraldi ezin hobea lagun, errugbiaz gozatu zuten lasarteoriatarrek larunbatean, Aitor Uranga gogoan. Goizean, errugbi eskolako gaztetxoek ikasitako guztia erakutsi zuten. La Unica eta Hernaniren arteko neurketak ireki zuen arratsaldeko erakustaldia. Ostean, hiruko txapelketa jokatu zuten Quebrantahuesosek, Atletico San Sebastianek eta Beltzak Lasarteorianek. Amaitezko, hirugarren denbora egin zuten Loidi Barrenen



TXINTXARRI

Zudaire, Espainiako selekzioarekin Berlinen lehian

Ekainaren 10era bitartean Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Berlinen izango da; 32 IDM BERLIN 2018 - World Para Swim World Series-ean lehiatuko du, Espainiako Selekzioarekin. Sei probatan parte hartuko du Buruntzaldea IKTko gazteak: 50, 200, 400 eta 800 metro libreetan, 100 metro bular eta 200 metro lau estiloetan.

Iruretagoiena, lau t'erdiko final zortzirenetan

Intza elkarteko Gaizka Iruretagoiena bakarrik geratu da Gipuzkoako lau t'erdiko txapelketako finalerako bidean. Jon Pello Artetxek eta Aritz Solanok kanporaketako partidak galdu zituzten. Iruretagoienak final laurdena Gaztelekuko Alberdiren aurka jokatu du igandean, 11:00etan, Michelingo kirol gunean.

ZORION AGURRAK




Ekain eta Eneko
Zorionak bikote! Muxu handi bat familiaren partez.



Iker
Parra egin ahal duzun bitartean, zure hortzek iraungitze data baitute. Zorionak



Laura eta Lucia
Zorionak nere bi neska poxpolinei. Laurak 5 urte, eta Luciak 10 jadanik. Muxu pottoloak aita eta amaren partetik.



Ana
Zorionak! 60 jada! Pintxopotea ordaintzea tokatzen zaizu! Etxekoan partetik: aita, Lur eta Curro.



Naiara
Zorionak Printzesa!!! Hamar muxu handi maitia!!! Amatxo eta aitaxoaren partetik!!!



Ibai
Zorionak zure aitaren partetik. Ondo pasa!!!



Luken
Zorionak pottolo! Eskerrik asko gure bizitza oraindik eta politago egiteagatik! Muxu bat, Danel, aitaxo eta amatxo.

GUTUNAK

Ingurumen-kontuetan, propaganda gutxiago eta konpromiso gehiago

EGUZKI

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela eta, Lasarte-Oriako Udalak Aste Berdea antolatu ohi du urtero fetxa hauetan. Aurtengo leloa *Plastikoek eragindako kutsadurarik gabeko planeta baten alde* izan da. A zer guaya den gure Udala!

Baina... Lasarte-Oria, Donostiarekin batera, San Markoko azkena da birziklatzen, Udalak ez duelako etxeko zaborrak (plastikoak barne) gaika biltzeko fundamentuzko sistemarik ezarri nahi. Hori bai, gero Udaletxeko fatxadan dotore asko jarriko du pankarta: *Lasarte-Oria birziklapenaren alde!*

Bide batez, alkateak herria erraustegiaren aurka dagoela badakiela esaten duen arren, erraustegiko goitentsioko lineak Lasarte-Oria alde

alde zeharkatzeko baimena eman berri du, lan hori ez errazteko eskatuz aurkezturiko herritarren sinadurei jaramonik egin gabe.

Egun, Lasarte-Orian indarrean dagoen zaborra biltzeko sistema txarra da birziklatzearen ikuspegitik, baina baita beste ikuspegietatik ere. Isla asko, eta zer esanik ez lurpeko zaborrontzi asko, egoera penagarrian daude. Sistema zaharberritze baten behar gorrian dago. Honen aurrean Udalak zer bait egin behar, eta zer egin duen? Bada, auzokonpostagailuak kendu! Egia esan, aspaldi iragarri zuen kenduko zituela eta are aspaldiago zuen kentzeko gogo, baina noiz kenduko, eta Aste Berdean bertan kendu ditu. A zer punteria! Keinu hori hamaika hitz baino adierazgarriagoa da.

Beraz, Aste Berdean ere, Udalarik propaganda gutxiago eta koherentzia, fundamentu eta konpromiso gehiago eskatu behar zaizkio.

OHARRAK

Zabaleta auzoko jaietako zozketa

Zabaleta Auzolan elkarteak auzoko jaietako zozketako zenbaki irabazlea 7490 dela jakin arazten du. Saria Txartel Txoko jatetxean 4 afari dira.

Irabazlea jarri dadila harremanetan Zabaleta Auzolan elkarteko Jai Batzordearekin.

Dantza ikastaroetako aurrematrikula garaia

Lasarte-Oriako Kultura sailak eskaintzen dituen dantza ikastaroen aurrematrikula garaia ekainaren 11an ireki eta ekainaren 22an amaituko da.

6-12 urte arteko gaztetxoek eta helduek eman dezakete izena. Ikasturtea urrian hasiko da.

Interesatuak aurreinskripzioa egin eta informazio gehiago eskuratu dezakete Manuel Lekuona kultur etxean. Matrikula garaia irailean izango da.

Txoko eta kanpaldietako bilerak

Ttakun KEk antolatzen dituen HH5-LH6 mailetako Txokoetako eta kanpaldietako bilerak gaur ekainak 8an izango dira Manuel Lekuona kultur etxean.

HH5-LH6 mailakoen euskarazkoa bilera 17:45ean da eta gaztelerakoa, berriz, 19:00etan. Astigarragako irteerako bilera 19:30an da.

Azkenik, kanpaldietako bilerak Atxondokoa 17:00etan da eta Donemiliaga 18:15ean.

Udal Musika eskolako aurrematrikula azken eguna

Gaur, ekainaren 8a, Udal Musika eskolako aurrematrikula egiteko azken eguna da. Derrigorrezkoa da aurrematrikula betetzea uztailan matrikula egin ahal izateko.

Interesatuak Manuel Lekuona kultur etxean egin dezakete inskripzioa, 9:00etatik 14:00etara.

San Pedro jaietan taberna-barrak jartzeko eskaera epea amaitzen

San Pedro Jaietan kanpoko taberna-barrak ipintzeko eskaeraren epea gaur, ekainaren 8a, amaitzen da.

Lasarte-Oriako udaleko Erregistroan aurkeztu beharreko agiriak eskaera, eske-orri normalizatuan eta neurriak dituen krokis edo marrazkia dira.

JAIOTAKOAK

Izan Garcia Vega. Maiatzaren 31n.

HILDAKOAK

María Moncayola Antón. Ekainaren 6an.

Jose Manuel Altuna Unanue. Ekainaren 5ean.

Gabriel Mesa Huertas. Ekainaren 2an.

Adoración Etxeberria Furundarena. Ekainaren 1an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 8	URBISTONDO
Larunbata, 9	DE MIGUEL
Igandea, 10	DE MIGUEL
Astelehena, 11	GANDARIAS-URIBE
Astearte, 12	ORUE
Asteazkena, 13	DE MIGUEL
Osteguna, 14	LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINITZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

KOMIKIA



ESKELAK

Gabi Mesa



euskal herriko zoologikoan inuriek ez dute asko luzitzen, asko ari den arren isilpean langile, egoskor, gogor. Zure preso maiteak etxeratu baino lehen itzali da zure irrifarra, **gabi** baina azken ziega ixten denean, azken presoa besarkatuko dugu eta gure ondoan izango zara, **gabi** irrifartsu, zutik ukabila!

Zure lagunak

ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA
ALOKAIRUAN EMAN
Etxebizitza alokatzen da Sasota auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 526 766.

LANA
ESKAERA
Pertsona adinduak zainduko nituzke

asteburuetan, jai egunetan edo ospitaleetan gauean. 606 661 048/943 404 015.
Pertsona edadetuak zaintzeko lan bila nabil. Garbitzeko, asteburuan lan egiteko edo orduka aritzeko prest nago, externa moduan. Telefonoa: 671763558.

SALEROSKETAK
SALDU
Kotkea Salgai. Renault Clio, 2006. Hiru atekoa, ondo zaindua eta gutxi erabilia. 49.900 km. 1.500 euro. Telefonoa: 687 355 095.

HEZKUNTZA
Frantseseko, inglesko eta latineko klaseak emango nituzke, baita

eskola laguntzakoak ere. Ekonomikoa. 600 766 068

MANTTANGORRI HIRIBUSA

Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea
Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artebe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Banatzaleak
Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Inigo Ibarburu, Mikel Valdes,
Maialen Goikoetxea.

Informatikoa
Benat Gonzalez

PUBLIZITATEA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zerua Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



EUSKAL HERRIA Giza Katea. Gure Esku Dago ekimenak aurten ere, etorkizuna erabakitzearen eskubidearen aldeko ekimen masiboa egingo du. 2014 urtean egindako giza katearen arrakasta ikusirik berriro ere Euskal Herriko puntu ezberdinak batuko dituzte, Gasteiz, Bilbo eta Donostia hiriburuak hain zuzen ere. Lasarte-Oriak Ugaldea-Belartzako arteko kilometroak egingo ditu. Hitzordua 10:30ean da Okendo plazan. Donostia-Bilbo-Gasteiz, igandea, 12:00etatik 12:30era.



LASARTE-ORIA Erromeria. 25 urte dira Semblante Andaluzek Rocioko erromeria antolatzen dituen. Hori ospatzeko egitarau oparoa antolatu du astebururako. Atsokabarreko parkean giro ederra izango da. Musika eta dantza ez dira faltako. Esate baterako, Errenteria eta Irungo elkarten dantza taldeen emanaldiak izango dira. Atsokabar parkea, asteburu osoa.

OSTIRALA 8

LASARTE-ORIA Horma-irudia

Horma-irudia egingo da botilen plastikozko tapoekin. Poltsa berrerabilgarriak ere banatuko dira. Aste Berdeko ekintza. Okendo plaza, 16:30etik 19:30era.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Brancussi, Jose Manuel Mongeren ikasleen margo eta marrazki erakusketa ikusgai izango da ekainaren 15era arte. Gaur irekiera ekitaldia izango da. Antonio Mercero, 18:00etatik 20:30era.

LASARTE-ORIA Antzerki eta dantza hamabostaldia

Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantza ikasleen euskal dantza erakustaldia izango da. HH5 eta LH3 maila arteko dantzariak izango dira. Manuel Lekuona, 19:00etan.

HERNANI Garagardo azoka

Igandera arte, XV. Garagardo azoka ospatuko da. Gauero musika taldeek giroa dute. Hernani Errugbi taldeak antolatua. Atsegindegi, ostiral arratsaldea, larunbata eta igandea egun osoz.

LARUNBATA 9

LASARTE-ORIA Jaialdia

Landaberri ikastola eta Oriarte institutoko haur, gaztetxo, guraso eta irakasleek ikasturte amaierako jaialdia dute. Landaberri-Zubieta ikastola, egun osoa.

LASARTE-ORIA Rocioko Erromeria

XXV. Rocioko Erromeria antolatu du Semblante Andaluz elkarteak: 12:00etan, Erromeriaren hasiera. 12:30ean, Gitanillas del Alba eta Duende taldeen dantzaldia. 14:30ean, herri-bazkaria. 17:00etan, Gitanillas del Alba eta Duende taldeen dantzaldia. 18:00etan, Irungo Embrujos Andaluz dantza-taldearen erakustaldia. 19:00etan, Semblante Rocioko koruaren emanaldia. 20:00etan, Amaia Gonzalez Caballero dantza eskolako ikasleen erakustaldia. 20:30ean, dantzaldi herrikoia. Atsokabar parkea, 12:00etatik 21:30era.

LASARTE-ORIA Antzerki eta dantza hamabostaldia

Kukuka antzerki eta dantza eskolako antzerki eta dantza ikasleen erakustaldia izango da:

- *Dantza garaikidea.* DBH1-2 eta Helduak.
- *Har-hi-zukuzine.* DBH1-2 Landaberri. Manuel Lekuona, 20:00etan.

ANDOAIN Kontzertua

Natural Project taldeak Esther diska aurkeztuko du. Sarrera 8 euro. Bastero kulturgunea, 20:00etan.

IGANDEA 10

LASARTE-ORIA Giza katea

Gure Esku Dago ekimenak Gasteiz, Bilbo eta Donostia lotzen dituen Giza katea egingo du. Lasarte-Oriak Usurbilgo Ugaldea poligonotik

Belartzako biribilgunera dauden 2 kilometroak osatuko ditu. Ugaldea-Belartzako, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Rocioko Erromeria

XXV. Rocioko Erromeria antolatu du Semblante Andaluz elkarteak: 11:00etan, Semblante Rocioko koruak meza rozieroa girotuko du, Ama Birjina Arantzazuko Ama elizan. 12:00etan, Rocioko Ama Birjina Arantzazuko Ama elizatik aterako da Atsokabar parkera. 13:00etan, Ohorezko ardoa agintari eta gonbidatuentzat. 14:30ean, herri-bazkaria. 16:30ean, Ainara Dantza Eskolako Soraya taldearen ekitaldia. 17:30ean, Errenteriako Aljarafe taldearen dantzaldia. 18:00etan, Andoaingo Triana dantza-taldearen erakustaldia. 18:30ean, Errenteriako Concha Rociera taldearen dantzaldia. 19:00etan, Azabache eta Zambra dantza-taldearen erakustaldia. 19:30ean, Semblante Andaluzeko taldeetako kide-ohien ekitaldia. 20:00etan, dantzaldi herrikoia. 20:30ean, Ama Birjinari agurra, Salve Rociera abestuz. 21:30ean, festa-amaiera. Atsokabar parkea, 11:00etatik 21:30era.

LASARTE-ORIA Antzerki eta dantza hamabostaldia

Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantza ikasleen euskal dantza-sorkuntza erakustaldia izango da, LH4 mailatik Helduen taldeetara. Manuel Lekuona, 19:30ean.

ZINEMA

USURBIL

URBIL

Jurassic World:

El reino caído

Ostirala:

16:00, 16:30, 17:00, 18:00, 18:45, 19:10, 19:45, 20:45, 21:30, 22:00, 22:30.

Larunbata:

16:00, 16:30, 17:00, 18:00, 18:45, 19:10, 19:45, 20:45, 21:30, 22:00, 22:30, 23:30, 00:10, 00:30.

Igandea: 16:00, 16:30, 17:00, 18:00, 18:45, 19:10, 19:45, 20:45, 21:30, 22:00, 22:30.

Han Solo: Una historia de Star Wars

Ostirala:

16:20, 19:10, 22:05, 23:50.

Larunbata:

16:20, 19:10, 22:05, 23:50.

Igandea: 16:20, 19:10, 22:05.

Los extraños: Cacería nocturna

Ostirala:

15:45, 21:50.

Larunbata: 21:50. Igandea: 21:50.

El malvado zorro feroz

Ostirala: 15:55.

Larunbata: 15:55.

Igandea: 15:55.

Deadpool 2

Ostirala:

16:40, 19:15,

21:40, 00:45.

Larunbata:

16:40, 19:15,

21:40, 00:45.

Igandea: 16:40,

19:15, 21:40.

Campeones

Ostirala:

16:15, 18:45,

21:15, 23:45.

Larunbata: 16:15, 18:45, 21:15.

Igandea: 16:15,

18:45, 21:15.

Vengadores: Infinity War

Ostirala: 23:50.

Larunbata: 23:50.

Sherlock Gnomes

Ostirala:

17:45.

Larunbata:

15:45, 17:45.

Igandea:

15:45, 17:45.

Verdad o Reto

Ostirala: 19:45.

Larunbata: 19:45.

Igandea: 19:45.

ASTEARTEA 12

LASARTE-ORIA Antzerki eta dantza hamabostaldia

Kukukako antzerki ikasleen erakustaldia:

- *Danbor Magikoa.* LH3-4 Landaberri.
- *Erregearen hiru semeak.* LH3-4 Landaberri.
- *Mokoa galdu dute oiloek.* LH3-4 Landaberri.
- *Mimo.* LH3-4 Landaberri.

 Manuel Lekuona, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Entsegua

Sorgin dantza prestatzeko entsegua egingo da. Eguraldi txarrekin, Landaberri Garaikoetxeako patioan egingo da. Okendo plaza, 20:00etan.

ASTEAZKENA 13

LASARTE-ORIA Antzerki eta dantza hamabostaldia

Kukukako antzerki ikasleen erakustaldia:

- *Abenturak, piratak, zombiak.* LH5-6 Landaberri.
- *Ametazinea antzerkia bitartez.* LH5-6 Landaberri.
- *Hegaldi zoroa.* LH5-6 Landaberri.
- *India eta bakerak.* LH5-6 Landaberri.

 Manuel Lekuona, 19:00etan.

OSTEGUNA 14

LASARTE-ORIA Entsegua

Sorgin dantzako entsegua egingo da. Okendo plaza, 20:00etan.

ELEKTRIZITATEA/
ELEKTRONIKA

MANTENTZE-LANAK/
ENERGIA

ADMINISTRAZIOA

FABRIKAZIO
MEKANIKOA

AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK!

www.lhusurbil.eus

Goi eta
Erdi Mailako
ZIKLOAK

Lanerako
Prestakuntza
IKASTAROAK

Berrikuntza
PROIEKTUAK

...

Ekaina

ASTEDUNA	ASTARTEA	ASTEAZKENA	ORTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Ekainaren 4tik 15era



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

Ttakuneko bazkide zara?

Ekainean, zikiro afarirako bi txartel zozkatuko ditugu gure bazkideen artean. Zozketan sartu nahi baduzu, eman izena ekainak 11 baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, Ttakunen bulegoan, 646 82 44 66-ra whatsapp-a bidalita edota 943 37 14 48 zenbakira deituta.



Bazkideetza
informazioa



@TtakunKE



R.P.S. 175/15 I.L.G.

2 mōbetaurreko:

gama altuko
progresiboak

+
eguzkitako progresiboak

229€

www.multipopticasgipuzkoa.com



Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan